



ikastolak



SAN FERMIN IKASTOLA
ZIZUR TXIKIA

SF



Lehen Hezkuntzako hainbat ikasle, zientzia lantzen.

LABURREAN


'KANPO LANA' PROGRAMA

●●● Hitzarmena. Bizikidetzaren kontrako gatazkak sortzen direnean ikastetxeetan, maiz jo izan dugu irakaskuntzan zigorraren neurri tradizionalera. Nafar Gobernuak Hezkuntza Departamenduak, berriz, Kanpo Lana izeneko programa martxan jarri du zigor horiek komunitatearentzako zerbitzuekin ordezkatu ahal izateko. Ikastolari oso ekimen interesagarria iruditu zitzaion eta hitzarmena sinatu berri du San Juan de Dios ospitalearekin ildo honetan lanean hasteko. Zigor prozeduretan elementu positiboak erantsi nahi dira, eraikitzaileak izango diren neurriak aplikatuz.

Orain dela bi urte abian jarritako hausnarketatik dator zientzia beste modu batera lantzeko egitasmoa San Fermin Ikastolan. Natur zientzietako gaietan ezagutza eta jakintza izugarri areagotu da azken hamarkadetan eta irakasleek ere arlo horretan janzteko nahia sentitu izan ohi dute. Horregatik Lehen Hezkuntzan konpetentzia zientifikoaren lanketa hobetzeko beharra ikusi zen duela bi urte. Batez ere, ezagutzaren transmisio hutsetik ihes egin nahi genuen, bide horretan haurrak zientzialari rolean murgilduz, eta horretarako, planteamendu konpetentzialagoa osatu beharra zegoen.

Tradizionalki, zientzia gaiak oso modu fragmentatuan irakatsi izan ohi dira; adibidez, giza gorputzeko arnas aparatuen lanketa egin daiteke ikasturte batean eta hurrengoan, berriz, zirkulazio aparatoren, baina ez dugu, gehienetan, bien arteko lotura lantzen. Gaur egun, ordea, frogaturik dago, baita zientziaren arloan ere, ikuspegi sistemikoa izatea ezinbestekoa dela. Hau da, eduki konkretu batzuetan fokoa jarrita, hauek osotasunarekin duten harremana aztertu beharra dagoela.

Planteamendu honekin, ikasleak ikaskuntza prozesuan modu aktiboagoan inplikatu nahi izan ditugu eta irakaslearen papera ere aldatu, ikaskuntza prozesu horretan bidelagun izateko pausuak emanez. Horretarako Arantza Gurutzeaga San Fermin Ikastola-



Zientzien irakaskuntza eraldatzen

LEHEN HEZKUNTZAN KONPETENTZIA ZIENTIFIKOAREN LANKETA HOBETZEKO BEHARRA IKUSI GENUEN DUELA BI URTE

Testua eta argazkia San Fermin Ikastola

LEHIAKETARAKO GALDERAK

1. Norengana jo genuen konpetentzia zientifikoko saioak burutzeko?
 2. Zein mailetako unitate didaktikoak eraldatu genituen?
 3. Zerekin lotutako hobekuntzak egin ditugu unitate horietan ikasturte honetan?
- Bidali zuen erantzunak nie03@ikastola.eus helbidera, zure izen-abizenak, telefono zenbakia, helbidea eta ikastolaren izenarekin batera.

IRABAZLEAK

OINEZ TXARTELA: Axular Aleman (Baztan Ikastola), eta Maider Fernandez (Paz de Ziganda Ikastola).
INTER-SPORT IRABIA (baloia): Itsaso Lahera (Zangozako Ikastola).

ko eta Nafarroako Unibertsitate Publikoko irakasle ohiarekin harremanetan jarri ginen, Lehen Hezkuntzako 2. zikloko irakasleekin konpetentzia zientifikoari buruzko prestakuntza saioak burutu eta hainbat ekimen antolatzen hasteko. Konpetentzia zientifikoaren osagaiak eta azpikonpetentziak definitu, unitate didaktiko bat diseinatzeko pasuak eraiki, ikasleen ezagutza alternatiboak antzematuko eta pentsarazteko galdera probokatzailerak landu, modelizazio eta indagazio egoerak nola bideratu ikasi, ezagutzak eraikitzekeko lagungarriak diren galderak sortu... Lanketa horretan murgildu ziren Lehen Hezkuntzako irakasleak.

Irizpide horiek guztiak kontuan hartuz, LHko 3. eta 4. mailako unitate didaktiko bana hartu eta horien eraldaketari ekin genion erronka moduan. Horretarako, diziplina arteko proiektua diseinatu genuen, zeinetan, bidenabar, komunikazio konpetentzia, pentsatzen ikastekoa eta elkarbizitzekoa ere uztartu genituen. Zehazki, pentsatzen ikastekoa eta elkarbizitzeko konpetentziek hartu zuten protagonismo handiena, horretarako azken urteetan ezagutu ditugun metodologia teknika berriak aplikatuz: TBL, ikaskuntza kooperatiboa, ebaluazio hezigarria...

Aurtengo ikasturtean berriz, hobekuntzak egin ditugu unitate horietan, besteak beste, aniztasunaren trataerarekin lotutakoak. ●

Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan xedatzen dena betez, zure datu pertsonalak ZOZKETA fitxategian sartuta daudela eta horren helburua erakundeak antolatutako zozketak kudeatzea dela jakinarazten dizugu. Fitxategia Datuak Babesteko Agentzian aitor-tu dugu eta datuen segurtasuna bermatzeko neurriak ezarri ditugu.